



## MAIATZAK 26ko HAUTESKUNDE ONDOKO INKESTA (2019ko maiatza) Prensa oharra

### SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia maiatzaren 26ko Udaletarako eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan EAeko biztanleek izandako hauteskunde portaera izan da.

Landa lana Hauteskundeen ondoko egunetan egin zen, 2019ko maiatzaren 27 eta 28an.

### INTERESA ETA HAUTESKUNDE-KANPAINAREN JARRAIPENA

#### Hauteskundeekiko interes eta informazioaren jarraipen zabala

Herritarren %72k diote interes handia edo nahikoa izan dutela iragan maiatzaren 26ko Hauteskundeekiko; interesa 2015eko Udal eta Foru Hauteskundeekin erakutsitakoa baino dezente altuagoa izan da (orduan %56koa izan zen) eta 2019ko Hauteskunde Orokorrekikoa baino zertxobait baxuagoa izan da (%79koa izan zen).

Inkestaturen %71k jarraitu dute hauteskunde-kanpaina gutxienik astean bi-hiru egunetan telebistaren bidez; %54k egunkariaren bidez eta %36k irratien bidez.

Interneten edo sare sozialen bidez kanpaina jarraitu duten herritarren portzentajea %40 da; portzentaje hau %72raino igo da gazteenen artean, izatez, adin talde honek erabiltzen duen informazio modurik hedatuena da.

Hauteskunde hauek hizketa gai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin %69rentzat, lagunekin %55arentzat eta lankide edo ikaskideekin %39rentzat; 18 eta 29 urte arteko biztanleek gainerakoek baino gehiagotan izan dituzte hauteskundeak hizketa gai (%77k eta %71k, hurrenez hurren, familiarekin eta lagunekin).

Jendartearen %68k alderdiren baten programa edo propaganda irakurri du, %64k hautagaiaren baten elkarrizketa edo debaterik ikusi edo jarraitu du hauteskunde-kanpainan eta, soilik %10 joan da bilera edo mitinen batera. Programa edo propaganda irakurri dutenak igo egin dira 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeekiko eta 2019ko Hauteskunde Orokorrekiko (bieten %56a izan zen).

Bestalde, herritarren %45ek hauteskunde-aurreko inkesten berri izan dute eta %54k ez. Inkestaturen %29k diote hautesleek boto erabakian asko edo nahikoa eragin dutela inkesta horiek, %26k gutxi eta beste %26k ezer ere ez.

### BATZAR OROKORRETARAKO HAUTESKUNDEETAKO PORTAERA

#### Boto emaileak konforme daude euren botoarekin; abstentzionistak neurri txikiagoan

Batzar Nagusietarako Hauteskundeetan, botoa erabakitzerakoan gairik garrantzitsuenak euren lurralde historikoari (%42) eta Euskadiri (%41) dagozkionak izan dira; eta askoz gutxiago Espainiari buruzko gaiak (%5). Beste %5ek diote hiruei buruzko gaiak berdin eragin dietela.

Hauteskundeetan parte-hartzeari eta botoa erabakitzeko uneari buruz, botoa eman zuten hamar lagunetik zortzik (%83) hauteskunde-kanpaina hasi aurretik erabakita zuten, %11k kanpaina zehar erabaki zuten, %1ek 'hausnarketa egunean' eta %4k hauteskunde egunean bertan. Kanpaina hasi aurretik erabakia hartuta zutenen portzentajea 2011 eta 2015eko Foru Hauteskundeetan baino altuagoa izan da (orduan %79 eta %67 izan ziren, hurrenez hurren).

Parte-hartu edo ez erabakitzeko uneari buruzko desberdintasunak nabarmenak dira botoa ematera joan direnen, aurreko parrafoan aipatutako datuak, eta ez direnen artean. Abstentzionisten %54k hauteskunde-kanpaina hasi aurretik erabakia hartuta zuten, %14k kanpaina zehar erabaki zuten, %3k 'hausnarketa egunean' eta %19k hauteskunde egunean bertan.

Botoa ematera joan zirenen %77k konbentzimenduz eman zuten botoa, %11k hainbat zalantzekin eta %12k txarretan aukerarik onena zelako.

Bestalde, boto emaileen hamarretik bederatzi baino gehiago konforme daude hauteskunde egunean izandako portaerarekin, %95; soilik %2k nahiago zukeen beste alderdi bati eman balio. Haatik, abstentzionisten artean %11k nahiago zukeen botoa eman izan balu, %21ek ez dakite edo ez dute erantzun eta %68 dira euren portaerarekin konforme daudenak.

Biztanleen %78k positiboki baloratzen dituzte bere herrialdeko Batzar Nagusietarako Hauteskundeetako emaitzak eta %12k negatiboki. Balorazio negatiboa %25raino igo da 18 eta 29 urteko adin taldean.

**UDAL HAUTESKUNDEETAKO PORTAERA****Gehiengoak hauteskunde-kanpainaren aurretik erabakia zuen bere portaera eta emaitzak positiboki baloratzen ditu**

Udal Hauteskundeetako botoa erabakitzeko orduan, udalerrri mailako gaiak izan dira garrantzitsuena (%67), ondoren Euskadiri buruzkoak (%21) eta soilik %2k aipatu dituzte Espainiari buruzko gaiak. %4k hiru eremuetako gaiak berdin kontuan hartu dituztela diote.

Botoa eman zuten hamar inkestuetatik ia bederatzik (%87) hauteskunde-kanpaina hasi aurretik zuten erabakita, %8k kanpaina zehar hartu zuen erabakia, %1ek 'hausnarketa egunean' eta %4k hauteskunde egun berean. Kanpaina hasi aurretik erabakia hartuta zutenen portzentajea 2011 eta 2015eko Udal Hauteskundeetan hartuta zutenena baino altuagoa da (orduan %79 eta %68 izan ziren, hurrenez hurren).

Foru Hauteskundeetan bezala, parte-hartu ala ez erabakitzeko uneari dagokionez desberdintasun nabarmenak daude botoa ematera joan direnen eta ez direnen artean. Abstentzionisten %57k erabakia hartuta zuten hauteskunde-kanpaina hasi aurretik, %16k kanpaina zehar erabaki zuten, %2k 'hausnarketa egunean' eta %22k hauteskunde kanpaina egunean bertan.

Botoa ematera joan direnen %69k konbentzimenduz eman dute, %13k hainbat zalantzekin eta %17k txarrenetan aukerarik onena zelako.

Bestalde, boto emaileen %95 konforme daude Udal Hauteskundeetan izan duten portaerarekin; soilik %1ek nahiago lukete beste alderdi bati botoa eman izan baliote. Gainera, abstentzionisten artean gehiengoak, %82, konforme daude botorik ez eman izanarekin eta %10ek nahiago lukete eman izan balute.

Herritarren %76k positiboki baloratzen dituzte hauteskunde haueko euren udalerriko emaitzak eta %14k negatiboki. Berritoren ere gazteak dira baloraziorik okerrenea egin dutenak (%26k baloratu dituzte negatiboki).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina Udal Hauteskundeetan boto eskubidea zuten herritarrei zuzendua, EAE osorako 880 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm 3,37$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2019ko maiatzaren 27 eta 28an egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

[http://www.euskadi.eus/ikerketa\\_soziologikoak](http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak)

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 31an